ITXASOAK BOTARIKO GURUTZEA

Santi, oindiño gazte izan arren, batelaren patroi zan. Eta zer esanik ez oso biergiña ta kristiñau zintzoa gaiñera. Eta beti pozik bizi zan Santi, ez bakarrik batela arraiñez beteta ekarten ebalako edo diru pillotxua aurreratuta eukalako edo mariñel ona zalako. Beste gauzatxo bategaitik, batez be, pozik egoan mutilla. Miren'egaz, erriko neskatillarik onen eta politenagaz, ebillelako.

Eta Santi arraiñetan joaten etzanetan, illuntzean biak etxe ondoan berbaz egoten ziran.

—Noiz ezkonduko gara, Miren?

—Ene, ba!; zeuk gura dozunean.

—Gura izan ezkero, Pazko ostean edo ezkondu geintekez.

—Ba, bai edonoz. Baiña gure abi maite izango dan etxetxu bat edo billatu dozu?

—Ba, antxe egiten dabizen etxe barrian «pisotxu» bat artu geinke. Pozik eta bakian biziko gara.

—Jaungoikoak olantxe egin daiela.

Goiz baten, gaba arrantzan emonda, kaia, portura eldu ziranean, Txomin be begira edo, an egoan.

—Arraiña, Santi, polito dakazue gero.

—Bai, orain txiki asko dago egon be ta.

—Nortzukaz joan az, ba?

—Portu-kaleko Iñixio ta anaia ta au... Peru, eroan dodaz.

—I, ta biarko Patxi artu dokala entzun yoat. Egia dok?

—Bai. Zer ba, Txomin?

—Zer ba diñok, mutil? Ba'enki zer esan eban tabernan: Miren'egaz bera ezkonduko zala ta etxakiat zer ta ba-dakiat nor. Ganera ba-dakik zelangoa dan ori. Len be or nun-edo-nun bateren bat il gura izan ebala entzunda nagok.

—Lartxu edanda egongo zan ta... Ganera Miren'ek ez nau itxiko, ezta... ezta ezegaitik be.

—Neuk be ba-yakiat ori, neskatilla ona dok eta. Baiña Patxi be bere atzetik ba'yabik, gura dauana egin arte ez da geldi egongo.

—Ez egik esan olangorik, gizona, ez egik esan. Lelokeriea bat egitea gura ba'yok, musturrak neuk apurtuko yautsoazak.

—Bai, baiña kontuz ibilli adi, kontuz...

Illuntzean kaiara joiala, Santi'k Miren egaz topez egin eban bidean; baita berbaz egon be zatitxu baten. Alkar agurtu ta Santi ariñeketan kairantz joan zan, bere zain egozalako.

Batek baiño geiagok entzun ebazan Patxi'ren berbak eta zeozer jazoko zala usmatu be bai.

Txomin be an egoan beti lez begira.

—Agur, mutillak, ia arrain asko dakazuen.

—Agur, Txomin.

Urrengo goizean ba-etorren batela, baiña iru mariñelegaz bakarrik. Alan zabaldu zan berria erri guztian.

Santi'ren gurasoak ariñeketan portura joan ziran zer gertatu zan jakiten. Miren, au jakiñik, etxean geldidu zan, baiña negarrez erreka eginda.

—Zer jazo yako nire semeari? Nun dago Santi? —itanduten eban amak.

—Begitu, Tomasa —asi yakon Patxi—; geuk be ez dakigu ezer. Goizaldean, deskantzetako, lo apur bat egin dogu ta ni itxartu nazanian Santi batelian ez egoan. Lagun biak itxartu dodaz ta billa asi gara, baiña atzik be ez dogu ikusi.

Txomin'ek ezer be ez eban esan, baiña Santi Patxi'k itxasora bota ebalakoan egoan. Bakotxak naste bat egiten eban, ta iñok ez ekian gauzarik garbi.

Miren sarri egoten zan itxasorantz begira, Santi'ri itxaroten lez. Eta baten baiño geiagotan esaten eban negarrez bere kolkorako: «Nun ete zagoz, Santi? Ai! ai!, zer jazo ete yatzu or itxasoan?»

Eta egun baten itaun orren erantzuna itxasoak bialdu eban.

Patxi ta beste mariñel pillo bat ondartzan egozan sarak batzen. Eta olan egozalarik, uren ganean zeozer etorrela ikusi eben. Gurutze bat zan, ta olatuakaz geroago ta urrago etorren.

Mariñel bi uretara sartu ziran; gurutzea atara ta zutunik ipiñi eben.

Patxi'k gurutzeari ez eutsan kasu andirik egin.

Baiña, nundik etorri leiken a onaiño? Mariñelak gurutze ori ikusten joan ziran. Azkenean Patxi be, itxi sarak, ta joan zan.

Kristo begiratu ta ez dakit nik zer, baiña an bere barru-barruan zeozer sentidu eban.

Ilelaunikotu zan eta esan eutson: «Jauna, Zuk dana dakizu, eta Zuk ba-dakizu goizalde artan Santi neuk il ta itxasora jaurti nebala».

Ta dana bertan bera itxi ta autortzera joan zan.

Geroztik onaiño gurutze a eleizan dago. Ta mutiko batek guzurra esan dauala iñok igerriten dauanean esaten dautso: «Mutiko, guzurrik egundo be ez egik esan gero, Ak elizako gurutzekoak dana yakik eta...»

Elezar au, gaur egunean be, Asturias'ko amonak euren llobai edestuten dautse. Euskalerrian jazorikua bardin-bardin izan leiteke.

Oiz

GIZURENA

Egizu zuk, ama, itzul-bira bat dagigula ta errialde ez-ezagun arriskutsu bat zearkatzen dogula. Zu jarrita zoiaz zeure aulkiagan eta ni zure alboan nabil taka-taka neure zaldi margo dunean: Eguzkia jatxiz doa, arratsa illunduaz. Gure aurrean, bakar ta arre, Yoradigui basamortua edatzen da. Ingurumari legor ta arriabar oro. Zuk pentsetan dozu izutua: «Seme, ez dakit nun sartu garean». Eta nik diñotzut: «Ez zaitez bildurtu, ama».

Zidorra estu ta bigurra da, ta sasiak oiñak urratzen dabez. Abelgorriak itzuli dira dagoneko lau zabaletatik euren auzokuillu-elara. Gero ta illun nasiagoak dira zeru ta lurra, orrezkero ez dogu ikusten nundik goazan. Beingoan, zuk dei dagistazu, aopeko esanaz: «Zer argi ete da, seme, an ur ertzean dagoan a?»

Alarao izugarri batek zart illun-sabelean, eta itzal amilkor batzuk datorkiguz gaiñera. Zu osoan kukurtzen zara zeure aulkiagan eta jainkoen izenak bir-esaten dozuz otoizka. Lepo-gain zaroezan morroiak elorri ostean gordetan dira izu-ikaraz. Nik oiu dagitzut: «Ama, ez ikaratu, ni emen naukazuta!»

Gizerailleak gero ta urrago dagoz, ulelatz, igun luzez orniduta. Nik deadar: «Geldi or, gaizkiñok! Oinkada bat geiago ta illak zaric!» Beste garrasi lazgarri bat, eta bide-lapurrak gaiñean doguz. Zuk, zirgit egiña, eskutik oratuta diñostazu: «Ene seme! ene bizia! Jainkoarren, iges emetik». Nik erantzuten dautzut. «Ama, begira. Ikusiko dozu!»

Orduan, aztalez astintzen dot neure zaldia, ta onek jauzi, saltu dagi asarrekor. Zaratatsu alkar joten dabe niro ezpata ta besobabeakiak. Burrukan diardut ikaragarri; zuk, ama, ikusiko ba'zendu zeure aulki orretatik, ikararen ikaraz izoztuko zintzakez. Batzuk iges doaz, beste batzuk zati eginda jausten dira. Zuk, bien bitartean, ba-dakit nik, usteko dozu zeure aulki ortan jarrita, bakar-bakarrik, zure semea illa dala. Ontan ni biurtzen naz, dana odoldua, ta diñotzut: «Ama, amaitu da burrukea». Zuk orduan, jarleku barrutik urten, zeure bular gaiñean estutu ta diraustazu mosukatzen nozula: «Onezkero, zer izango nintzakean, ene semeak zaindu ez ba'nindu?»

...Egunero jazoten dira onango gauzak. Zergaitik gerta ez bein onango zerbait? Liburuetako ipuin bat lez izango litzake. Nire anaiak esango leuke: «Baiña, al ete? Nik onen erkintxo uste nebana!» Eta erriko gizonak bein ta barriro: Zorion audia izan zan egiaz umea bere amagaz egotea».

R. Tagore